



Andutzeta auzoa 15, 3. Solairua  
31760 ETXALAR  
Tfnoa. / faxa 948 635 036  
[info@bortziriakgz.eus](mailto:info@bortziriakgz.eus)  
[www.bortziriakgz.eus](http://www.bortziriakgz.eus)

## **BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEKO GIZARTE LANGILE LANPOSTUA BETETZEKO IZANGAIEN ZERRENDA ERATZEKO ETA KONTRATAZIO EDO ORDEZKAPENETARAKO LAN-POLTSA SORTZEKO DEIALDIA.**

Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lehendakariaren 2021eko otsailaren 8ko 02/2021 Ebazpenaren bidez, Bortziritako Gizarte Zerbitzuko gizarte langilearen lanpostua aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda osatzeko deialdia onartu da, hautaprobei bidez.

Hautaketa-prozesu hori gauzatuko da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartutako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bateginean gaiari buruz xedatutakoari jarraikiz (113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5koa, hura garatzeko eta betearazteko emandako sarrera-araudia onartzen duena), irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Administrazio-araubideko langileen kontratazioa arautzen da gainerako arau aplikagarrietan eta haren oinarrietan.

### **OINARRIAK**

#### **1.- DEIALDIAREN XEDEA.**

Bortziritako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko (aurrerantzean, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea) gizarte langile lanpostua betetzeko hautagaien zerrenda osatzeko deialdia iragartzen da, hautaketa-proben bidez.

Hautaketa horretatik sortzen den gaitasun zerrenda hurrengo kontratazio eta ordezkapenetarako erabiliko da, eta 5 urtez egongo da indarrean, edo, bestela, beste deialdi bat egin arte, bost urte baino gutxiagoko epean egiten bada; azken kasu horretan, deialdi honetatik sortzen den zerrendak bigarren postuan jarraituko du, bost urte bete arte.

Lanpostua Nafarroako administrazio publikoen B mailaren barruan dago, eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko plantilla organikoan horri buruz onartutako ordainsaria izango du.

Deialdi honetan parte hartzeko, beharrezkoa da izangaiek euskararen ezagutza EGA edo C1 mailarekin edo titulazio baliokidearekin egiaztatzea. Horretarako, hizkuntza-eskola ofizial batek edo beste erakunde eskudun batek emandako gaitasun-ziurtagiria eduki beharko dute, edo izangaiek deialdi honen xede diren eginkizunak betetzeko behar besteko hizkuntza-maila duten ala ez zehazten duen proba bat gaitasun beharko dute.

## 2.- PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.

Espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatueta herrarren ezkontideek ere hartzen ahal dute parte, edo aipatu nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatueta herrarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak baldin haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

c) Nafarroako bi hizkuntza ofizialen ezagutza (gaztelania eta euskara). Azken kasu honetan, EGA titulua edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko Gaitasun-Agiri baliokidearen bidez kreditatuta. Titulurik eduki ezean izangaiak proba bat gainditu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko.

d) Gizarte Langintzako Diplomatura edo Gradu titulua edo baliokidea izatea edo lortzeko moduan egotea (titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiriaren bidez) eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

e) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

g) B motako gidabaimena eta ibilgailua izatea.

Espainiako nazionalitatea ez izanik parte hartu nahi dutenek zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela diziiplina-zehapenik edo kondena penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea galarazten dienik.

Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoen kasuan, itunaren frogagiria aurkeztu beharko da.

Oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira, bai eta hautapen prozedurak eta kontratazioak iraun bitartean mantendu ere. Gerora horietakoren bat ez betetzea nahikoa arrazoi izanen da deirik ez egiteko, harik eta arrazoi hori desagertu arte.

### **3.- ESKABIDEAK**

Eskabide-orria aurkeztu aurretik, ezinbestekoa izango da enplegu-eskatzaile edo enplegu-hobekuntzaren eskatzaile gisa izena emanda egotea enplegu-zerbitzu ofizialetako batean.

Eskabideak II. eranskinean argitaratzen den ereduari lotuko zaizkio. Eskabideetan izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela.

Izangaiek honako hau aurkeztu behar dute eskabidearekin batera:

- Nortasun agiri nazionalaren –edo baliokidearen– fotokopia konpultsatua.
- Eskaturiko titulua edo tasak ordaindu izanaren jatorrizko agiriak edo konpultsatutako kopiak.
- Baloratuko diren merezimenduak frogatzeko jatorrizko agiriak edo konpultsatutako kopiak.

Dokumentazioa Bortziriako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko bulegoetan aurkeztu beharko da (Andutzeta kalea 15, 3. Etxalar-Nafarroa, 948-635036 telefonoa), aurrez aurre (aldez aurretik hitzordua eskatuz) edo postaz.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten ziurtatu aurretik.

Eskabideak postaz igortzen badira, interesdunak zer egun eta ordutan egiten den frogatu beharko du, eta kontratazio organoari hori bera jakinarazi, posta elektronikoz ([info@bortziriakgz.eus](mailto:info@bortziriakgz.eus)); betiere, aurkezteko epearen egun eta orduen barrenean.

Baldintza horiek bete ezean ez da iragarki honetako epetik kanpo iristen den proposamenik onartuko.

Ezgaitasun aitorturen bat duten izangaiek, parte hartzeko eskabidearekin batera, egoera horren frogagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana. Halaber, azterketak egiteko denboraren edo baliabideen egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean behar den tokian adierazi beharko dute, eta, horrez gainera, aparteko orri batean, nolako ezgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten.

### **4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA**

Eskabideak aurkezteko epea 2021eko martxoaren 5eko 12:00ak artekoa izango da, egun hori barne. Ezin izango da luzatu.

## 5.- KALIFIKAZIO-EPAIMAHAIA

Epaimahai kalifikatzailea kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Miguel M<sup>a</sup> Irigoyen Sanzberro, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko presidentea.

1. bokala: Jokin Apezetxea Azkarate, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko gizarte langilea.

Ordezkoa: Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko beste langile bat. Batzordeburuak izendatzekoa.

2. bokala: Edurne Ancizar Ibarra, Malerrekako Mankomunitateko gizarte langilea.

Ordezkoa: Mankomunitateko beste langile bat. Batzordeburuak izendatzekoa.

Idazkaria: Izaskun Gortari Sein, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko idazkaria.

Ordezkoa: batzordeburuak izendatuko duen beste idazkari bat.

Epaimahaia presidentek deituta eratu beharko da, probak hasi aurretik.

Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertaratu gabe.

Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeari eta aplikatzeari buruz planteatzen diren gai guztiak.

Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izango dute epaimahaian parte hartu, eta horren berri eman beharko diote deialdia egin duen organoari, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada.

Halaber, izangaiek epaimahai kalifikatzaileko kideak ezetsi ahal izango dituzte aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean.

Legez ezarritako abstentzio- eta ezespren-arrazoiek aplikatuz, epaimahaiaren osieran aldaketaren bat gertatzen bada, onartu eta baztertutako izangaien zerrendarekin batera argitaratuko da epaimahaia.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak sartu ahal izango ditu proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulariek beren espezialitate teknikoak baino ez dituzte erabiliko, eta espezialitate horiek bakarrik oinarri hartuta lagunduko diote epaimahaiari.

## 6.- HAUTAKETA PROZESUAREN GARAPENA ETA BALORAZIOA

### A) Euskara-proba.

Proba teoriko-praktikoa hasi aurretik, euskara-gaitasunaren titulua ez duten izangaiek dagokion proba eginez egiaztatu beharko dute ezagutza, eta, oro har, gai edo ez-gai kalifikazioa izango dute. Eskatutako maila EGA, C-1 edo baliokidea izango da.

Proba hori egin nahi duten izangaiek eskabide-orrian adierazi beharko dute.

Posta elektronikoz bidez jakinaraziko da proba egiteko eguna, ordua eta tokia. Informazio hori webgunean ere argitaratuko da ([www.bortziriakgz.eus](http://www.bortziriakgz.eus)).

Gai kalifikazioa lortu dutenek edo gaitasun-titulua edo baliokidea dutenek proba teoriko-praktikoa egingo dute.

### B) Merezimenduen balorazioa

Merezimenduen balorazioak gehienez 30 puntu izango ditu.

Epaimahaiak III. eranskineko baremoaren arabera baloratuko ditu merezimenduak, eta balorazio hori proba teoriko praktikoa baino lehen argitaratuko du webgunean ([www.bortziriakgz.eus](http://www.bortziriakgz.eus)).

Merezimendu gisa baloratzeko aurkeztu nahi den dokumentazioa eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Jatorrizko agiriak edo konpultsatutako kopiak izan beharko dute. Ez dira inolaz ere aintzat hartuko agiri bidez aurkeztu eta frogatu ez diren merezimenduak.

Epaimahaiak alegatutako merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahal izango dizkie izangaiei.

### C) Proba teoriko-praktikoa. Gehienez 70 puntu lortzen ahalko dira.

Proba egiteko eguna, ordua eta lekua posta elektronikoz jakinaraziko zaie hautagaiei. Informazio hori zerbitzuaren webgunean ere argitaratuko da ([www.bortziriakgz.eus](http://www.bortziriakgz.eus)).

Proba teoriko-praktikorako, I. eranskinean deskribatutako gai-zerrenda hartuko da oinarritzat.

Lehenengo proba test modukoa izango da lanpostuaren funtzioen ingurukoa.

Bigarren proba kasu praktikoaren ebazpena izango da.

Epaimahaiak ariketaren iraupena zehaztuko du probaren hasieran.



Nolanahi ere, testaren gehieneko puntuazioa 20 puntukoa izango da, eta gutxienez 10 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Kasu praktikoak 50 puntu izango ditu gehienez, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Ariketak pliken sistemaren bidez egingo dira.

Probarako deialdia deialdi bakar baten bidez egingo da. Deialdi horretan, parte-hartzaileek Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gidabaimena eraman beharko dute. Beren nortasuna egiaztatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak ezabatu egingo dira.

Proba egitean, ezingo da testurik kontsultatu.

Hautaprobak irauten duen bitartean, desgaitasun aitortua dutenentzat eta eskabidean hala eskatu dutenentzat, proba egiteko denboren eta bitartekoen egokitzapen posibleak eta beharrezkoak ezarriko dira.

## **7.- GAINDITU DUTEN IZANGAIEN ZERRENDA ETA DEI EGITEA**

Parte-hartzaileen artean puntuazioan berdinketa gertatuz gero, epaimahaiak ebatziko du, proban lortutako notarik altuena kontuan hartuta. Aurreko irizpideekin berdinketak jarraitzen badu, epaimahaiak horretarako egindako zozketa bakar baten bidez ebatziko da.

Proba teoriko-praktikoa eta baremazioa kalifikatu ondoren, epaimahaiak Bortziriako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen webgunean ([www.bortziriakgz.eus](http://www.bortziriakgz.eus)) argitaratuko du gainditutako izangaien zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta, eta puntuaziorik altuena duen hautagaiarekin hasiko da.

Gainditu duten izangaiei dei egin ahal izango zaie, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean sortzen diren premien arabera, deialdi honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.

Poltsara deitzeko, IV. eranskinean ezarritako araudia hartuko da kontuan.

Lokalizazioa errazte aldera, izangaiek harremanetarako telefono bat (horrez gain, beste telefono batzuk ere jakinarazi ahal izango dituzte) eta posta elektronikoko helbide bat gutxienez komunikatu beharko dituzte, eta informazio hori etengabe eguneratuta eduki beharko dute.

## **8.- KONTRATAZIO-ZERRENDAREN KUDEAKETA**

Deialdia ebatzi eta gaindituen zerrenda onartu ondoren, aurreko zerrendak ordezkatuko ditu.

Deialdi honen 6. oinarrian ezarritakoaren arabera proba gainditu duten izangai gaindituek soilik osatuko dute zerrenda.

Atal honen babesean eratutako zerrenda 5 urtez egongo da indarrean, edo, bestela, beste deialdi bat egin arte, bost urte baino gutxiagoko epean egiten bada; azken kasu horretan, deialdi honetatik sortzen den zerrendak bigarren postuan jarraituko du, bost urte bete arte.

## 9.- ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetako bat aurkez daiteke, aukeran:

- a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, erabaki hau edo errekurritzen den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean, organo egileari errekurritzeko asmoaren berri emanik; edo bestela,
- b) Gora jotzeko errekurtsua, zuzenean Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, erabaki hau argitaratu edo errekurritzen den egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epearen barnean.
- c) Berraztertzeke errekurtsua, egintza eman duen erakundean berean, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

## I. ERANSKINA

### Gaitegia

- 15/2006 Foru Legea, abenduaren 14koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, eremu orokorreko gizarte-zerbitzuen zorroa onartzen duena.
- 48/2020 Foru Dekretua, uztailaren 15ekoa, oinarrizko gizarte-zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa-sistema arautzen dituena.



## II. ERANSKINA

### Eskabide eredua

.....jaun/andrea, adinez  
nagusia dena eta NAN zenbakia ..... duena, .....eko.....aren.....an jaioa,  
honako helbidean bizi dena: (herria) ....., (helbidea)  
....., (zenbakia) ....., (pisua) ..... (posta kodea)  
.....; telefonoak ....., posta helbide  
elektronikoa .....,

### AZALTZEN DUT:

- Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko gizarte langile lanpostua betetzeko izangaien zerrenda eratzeko deialdian onartzea eskatzen duela, bai eta kontratazio eta/edo ordezkapenetarako lan-poltsa bat sortzea ere.
- Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.
- Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.
- Ez naizela diziplina espedientearen bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, ez eta diziplinako kaleratzearen bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.
  - Deialdian eskatutako titulazioa dudala.
  - Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean betetzen ditudala eta hura egiaztatze dokumentazio guztia atxiki dudala.
- Euskararen C1 mailako ezagutza probari dagokionez (markatu bidezkoa dena):
  - Euskararen C1 mailako ezagutza izatearen ziurtagiriaren kopia konpultsatua gehitzen diodala eskabide honi.
  - Euskararen C1 mailako ezagutza frogatzeko proba egitea eskatzen dudala.
- Ezgaitasunen bat izanez gero:
  - Azaltzen den egokitzapena eskatzen dudala, adierazten diren arrazoiengatik (beste orri batean azaldu beharko dira eskatzen diren egokitzapenak eta haietarako arrazoiak).
  - Ezindua naizela frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana.
- Instantziarekin batera ondorengo dokumentuen fotokopia konpultsatua atxikitzen ditudala:
  - Nortasun Agiri Nazionala –edo baliokidea–.
  - Eskaturiko titulazio akademikoa.
  - Merezimenduak konkurtso oposiziorako.

Horrenbestez, iragarritako deialdian onartu izatea ESKATZEN DUT.

.....n, 20.....ko .....(a)ren .....(e)an

### III. ERANSKINA

#### Baremazioa (gehienez 30 puntu)

A) **FORMAZIOA.** Gehienez 6 puntu. Lanpostu eta funtzioekin zerikusia duten ikastaroak baloratuko dira soilik.

11 eta 49 ordu bitartekoak: 0.5 puntu / formazio bakoitzeko.

50 orduetik gorakoak: puntu 1 / formazio bakoitzeko.

Unibertsitateko beste diplomatura, lizentziatura, gradua, masterra edo aditua: 2 puntu / titulazio bakoitzeko.

Gehienezko puntuazioa lortzean ez da ziurtagiri gehiago baloratu.

Ez dira baloratuko 10 ordu edo gutxiagoko formazioak.

B) **LAN ESPERIENTZIA.** Gehienez 24 puntu.

a) Oinarrizko Gizarte Zerbitzu batean edo antzeko organo batean gizarte-langile gisa lan egiten emandako lanaldi osoko urte bakoitzeko, 3 puntu.

b) Beste edozein administrazio publikotan gizarte-langile gisa lan egiten emandako lanaldi osoko urte bakoitzeko: 2 puntu.

c) Lanaldi osoan administrazio publikotik kanpo gizarte-langile gisa emandako urte bakoitzeko: 0.5 puntu.

Lan esperientzia ziurtagirien bidez egiaztatuko da, bertan egindako lanaldia zehaztuko delarik, eta behin-behineko lan kontratu nahiz finkoa izanda egindako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

Goian aipatu xehetasunak zehazten ez dituen ziurtagiria ez da baloraziorako kontuan hartuko.

Esperientzia denbora egiaztatuak urte osoak egiten ez baditu edo lanaldia ez bada osoa, dagokion proportzioa aterako da.

## IV. ERANSKINA

### Aldi baterako kontratazio-zerrendaren kudeaketa

#### Aurretizko gaiak

Izangaiaren deialdia eta, hala badagokio, kontratazioa abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera egingo da. Dekretu horren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onartzen da, bai eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera ere. Horretarako, hautagaiek dagokien zerrendan duten lehentasun-ordenaren arabera egingo dute deialdia.

Deitzen zaion izangaiak Administrazioak bere eginkizunak betetzeko jakinarazten dion epean sartu beharko du lanpostuan, eta, aldez aurretik, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legean aipatutako sexu-delituen ziurtagiria aurkeztu beharko du. Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 13. artikulua. Lanera sartzen ez bada, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, edo sexu-delituen ziurtagiria aurkezten ez badu, organo eskudunak kontratazio-zerrendako hurrengo hautagaia kontratatu ahal izango du.

#### Deiak egiteko arau orokorrak.

1. Izangaiekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat, bederen, eman beharko dute, baita helbide elektronikoa ere, harremanetarako bertze telefono zenbaki batzuk ere eman baditzakete ere. Informazio hori etengabe eguneratua eduki behar dute.

2. Izangaiekin harremanetan jartzeko honela jokatu da:

–Kontratazioa presazkoa ez bada, izangaiari deitzeko lau saiakera egingen dira 2 egunetan.

–Lanpostuan gehienez ere bi egunetan hasi behar bada, deitzeko bi saiakera egingen dira egun berean, tartean gutxienez ere 2 ordu utzita.

–Lanpostuan gehienez ere 24 orduren buruan hasi behar bada, izangai guztiei segidan deituko zaie, une horretan kontratazio zerrendan duten hurrenkeraren arabera, proposatutako kontratua onartzeko prest dagoen izangai lortu arte.

3. Izangai lortzeko lehen saioa telefonoz deituta egingen da, eta bigarrena, beharrezkoa balitz, mezu elektronikoa bidalita.

4. Betiere, dei bakoitza artxibo batean jasoko da, hura zer egoeratan, zer egunetan eta zer ordutan egin den adieraziz. Langileen ordezkariak sarbide zuzena izanen dute artxibo horretan.

5. Izangai batekin harremanetan jartzerik ez bada, zerrendan hurrengoa denari deituko zaio, harik eta eskaintzen diren lanpostu guztiak bete arte. Harremanetan jartzerik izan ez duten izangaiek zerrendan zuten postuari eutsiko diote.

6. Izangai batekin harremanetan jarri eta kontratatzeko eskaintza eginez gero, erantzuten ez badu, uko egiten diola ondorioztatuko da eta.

7. Kontratu bat onartzen duten izangaiei ez zaie bertze lanpostu batean aritzeko kontraturik eskainiko, non eta ez den 6 hilabete baino gehiagoko kontratueterako edo lanpostu hutsak betetzeko, edo lanaldi handiagoa eskaintzeko.

Deietarako orokorrean ezarritakoa deusetan ukitu gabe, izangai bat aldi baterako kontratu baten bidez lanpostu batean aritu bada eta, kontratu hori bukatu eta hurrengo 15 eguneko epearen barnean, lanpostu berdintsua aldi baterako betetzea baimentzen bada, Administrazioak izangai berari eskainiko dio kontratua, betiere dei egiten zaion momentuan baldintza hauek betetzen badira:

- a) Deia egiten den momentuan indarra duen zerrenda batean egotea izangaia.
- b) Kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

### **Uko egitea**

Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrendatik at geldituko da, ondoko egoera batean dagoela frogatu ezean:

- a) Indarrean dagoen izendapen, kontratu administratibo edo lan kontratu batengatik horretara behartua egotea.
- b) Aldi baterako ezintasun egoeran izatea edo haurra izan edo adoptatzeagatik lizentzia izatea.
- c) 3 urte baino gutxiagoko semea edo alaba, norberak izandakoa zein adoptatua, zaindu beharrean egotea. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz eskuragarri egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat iragan arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.
- d) Zaindu behar badu bigarren gradura arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, adina, istripua edo eritasuna dela kausa bere burua ezin gobernatu duena. Arrazoi hori dela kausa kontratu bati uko egiten dioten izangaia ez dira berriz eskuragarri egonen, harik eta kontratuari uko egin zioten egunetik gutxienez hilabete bat iragan arte, salbu eta hura eragin zuen arrazoia lehenago desagertzen bada.
- e) Izangaia ezkondu berria edo, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, parekatutako egoeran sartu berria izatea,



eskaintako kontratuaren hasiera eguna bikotea eratu ondoko edo eratu aitzineko hamabortz egun naturalean bada.

f) Ezgaitasunen bat behar bezala onartua izatea eta ezgaitasunaren ezaugarriak bateraezinak izatea eskaintzen zaion lanpostuaren ezaugarri bereziekin.

Kasu guztietan agiri bidez frogatu behar da badela arrazoi bat, 15 egun naturaleko epean, ukoaren lanpostua eskaintzen den egunaren biharamunetik hasita. Halakoetan zerrendan dauden toki berean jarraituko dute, "ez eskuragarri". Hala egin ezean, lanpostuari uko egitea justifikaziorik gabekotzat joko da.

### **Zerrendetatik baztertzea.**

Deia eragiten duen zerrendatik baztertuko dira ondoko egoera hauetako batean dauden izangaiak:

a) Eskaintako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.

b) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egotzi beharreko arrazoiengatik.

c) Sinatutako kontratuari uko egitea.

d) Urtebeteko epean izangaiarekin harremanetan jartzea ezinezkoa izatea, hark emandako telefonoaren edo helbide elektronikoaren bidez kontratatzeako deiak behin eta berriz eginda ere.

e) Lanpostua bertan behera uztea.

f) Kontratua amaitzea diziplina espediente baten tramitazioaren ondorioz, amaiera onesten duen ebazpen irmo batekin bururatzen bada.

g) Kontratua amaitzea gerora sortutako arrazoiak direla kausa, hain zuzen, kontratatzen den langilea lanpostuan aritzeko gaitasun edo egokitzapen faltagatik, horrek lanpostuak dituen eginkizunak eraginkortasunez betetzea galarazten duen errendimendu eskasa badakar. Betiere, zerbitzuaren arduradunaren txosten arrazoitua eta langileen ordezkarietako adostasuna egon behar dira.